



06 ZABALEA

Sagardo dolareen inbentarioa

ERAIKINAREN DATUAK

Izena eta aldaerak: Zabalea.

Auzoa, udalerrria: Santiagomendi., Astigarraga.

Dolarearen kokapena: Baserriaren behe solairuan, hego-mendebaldeko bazterrean, ukuilua zenaren ondoan.

Jabea: Jose Luis Zubillaga.

DOLAREAREN DATU HISTORIKOAK

Kronologia: XIX. mendekoa.

Iraunaldia: Duela 15-20 urte arte.

Zenbait datu: Auzoko tolare nagusia zen, Palanka, Plazaetxe, Etxeundi eta auzoko beste etxeetakoak bertara joaten ziren sagardoa egitera.

Egungo erabilera: Trasteleku, biltegia.

Kontserbazio egoera: Hala moduzkoa.

TIPOLOGIA ETA EZAUGARRI NAGUSIAK

Dolare-prentsa:

Askaren erdian zutitutako ardatza du, goiko zatian hariztatua. Burdinazko palanka bidez eskuz eraginda mugitzen da ardatzean gora eta behera, urka eta estutzeko mekanismoaz osatutako burua. Zurezko aska du, kantalerekin, eta solairu berean baino lurzorua baino altuago dauden soliba edo azpi sunbilek eusten dute.

Dolarearen osagarriak:

- Inertzia-bolantedun matxaka, goiko solairutik sagarrak tolbara bideratzeko hodiarekin. Hasieran eskuzko trakzioa bazuen, uhal eta polea bidez, motorrak mugitzen zuen azken urteetan.
- Sagardo botilak garraiatzeko egurrezko kaxak.
- Txorrotak, giltza edo trumukuak eta patsolak.

Argazkiak: 06.01, 06.02, 06.03.

GAKO-HITZAK

Eskuzko trakzioa, zurezko aska, matxaka, Astigarraga.

OHARRAK

Sagastiak mantentzen ditu eta bildutako sagarrak sagardotegi batera eramaten ditu.

GALDETEGIA

Informatzailea: Jose Luis Zubillaga.

Datu bilketaren egilea: A.Agirresarobe, J.Tellabide.

Datu bilketa data: 2010eko martxoaren 15a